

Espacio

**HISTORIA ETA ARTE
IBILBIDEAK**

Idazketa eta idatzitakoa

IRAKASLEAREN KOADERNOA

*Hezike
+ arako
Espazio*



1. AURKEZPENA

GASTEIZ, HEZIKETARAKO ESPAZIO GISA izeneko heziketa-programa Udalak taxutu du, honako asmo honekin: hiria ezagutzeko **OBJEKTU** gisa, ikasketarako **TOKI** gisa eta hezkuntzako **ERAGILE** gisa baliatzea.

Hezitzaile izateko, hiri batek, zeregin tradizionalak ez ezik, nahita eta arduratsu bere gain hartu behar ditu beste zeregin hauek ere: «bere herritar guztiak heztea, sustatzea eta garatzea, haur eta gazteengandik hasita» (Bartzelonako Deklarazioa, Hiri Hezitzaileen I. Biltzarra, 1990).

Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak, programa honen bitartez, hiriaren eta eskolaren arteko elkarrekintza-dinamika sortu nahi du. Hartara, Gasteizko herritarrei (eskola-umeengandik hasita) aukera eta bultzada emango die, hiria ezagutu eta bizi dezaten.

Programaren giltzarrietako bat dira **HISTORIA ETA ARTE IBILBIDEAK**.

Ibilbidea, izatez, **hiria ezagutzeko jarduera bat** da, eta honako **helburu** hauek ditu:

- Gasteizko toki eta eraikin adierazgarrietan barrena ibilbide didaktikoak eginez, bertatik bertara ezagutzea garai historiko jakin baten ezaugarriak eta garai hark gaur egungo hirian duen eragina.
- Hiriaren ezagutza praktikoa sustatzea. Hartara, hiriak eskaintzen dizkigun baliabide eta zerbitzuak ezagutu eta erabiltzeko behar den informazioa ematen zaie ikasleei.
- Ibilbidearekin lotura duten emakumeak ikustaraztea; aitortzea eta balioan jartzea historian, kulturen, artean eta politikan egin duten ekarpena.
- Ikasleen artean, ingurunea, oro har —eta historia eta arte ondarea, bereziki— balioetsi eta errespetatzeko ohiturak eta jarrerak sustatzea.

Programa honetako baliabide didaktikoetako bat **Irakaslearen koaderno**a da. Ibilbidean parte hartuko duten irakasleek koaderno honetan aurkituko dute ikasgelako jarduera prestatu eta osatzeko behar duten informazioa. Hala, ikasleek modu aktiboan parte hartzea eta jarduerari etekin handiagoa ateratzea errazten da.



Hurrengo taulan, **programaren ezaugarri nagusiak** ageri dira.

Ibilbidea	Hartzaileak	Baliabide didaktikoak	Iraupena	Taldea bitan banatuko da kopuru honetatik aurrera*:
Lantegiak Santa Maria katedralan	DLHko 1. mailatik 5.mailara	Maila bakoitzean Power Point bat. Monitore-gidaria	2 ordu	Ez da banatzen
Gasteizko ahozko memoria, 1940-1965	DLHko 4. maila	Power Point, argazkiak. Monitorea eta adineko pertsona boluntarioak	Ordubete	Ez da banatzen
Udala	Lehen Hezkuntzako 5.a eta 6.a	Unitate didaktikoa, irakaslearen koadernoak, ikaslearen koadernoak. Monitore-gidaria.	Ordubete eta 30 minutu	26 ikasle edo gehiago
	HHI eta helduen taldeak			
Erdi Aroko Gasteiz	Lehen Hezkuntzako 5.a eta 6.a	Unitate didaktikoa, DVDA, irakaslearen koadernoak, ikaslearen koadernoak. Monitore-gidaria.	2 ordu	21 ikasle edo gehiago
	DBHko 1. zikloa			25 ikasle edo gehiago
Santa Maria katedralera bisita	Lehen Hezkuntzako 6.a	DVD, ikaslearen koadernoak. Monitore-gidaria.	Ordubete eta 15 minutu	27 ikasle edo gehiago
	DBH			
San Pedro Eliza	Lehen Hezkuntzako 6.a	Irakaslearen koadernoak, ikaslearen koadernoak. Monitore-gidaria.	Ordubete eta 30 minutu	Ez da banatzen.
	DBH, DBHO, HHI eta helduen taldeak			
Artxiboak ezagutzea	DBH, DBHO, HHI eta helduen taldeak	DVDA, irakaslearen koadernoak, ikaslearen koadernoak. Monitore-gidaria.	2 ordu	15 ikasle edo gehiago
Idazketa eta idatzitakoa. Artxiboak	DBH, DBHO, HHI eta helduen taldeak	PPT, irakaslearen koadernoak, ikaslearen koadernoak. Monitore-gidaria	3 ordu	15 ikasle edo gehiago
Gasteiz Neoklasikoa	DBHko 2. zikloa	Unitate didaktikoa, DVDA, irakaslearen koadernoak, ikaslearen koadernoak. Monitore-gidaria.	2 ordu	21 ikasle edo gehiago
	HHI eta helduen taldeak			25 ikasle edo gehiago



XIX. mendeko zabalgunea	DBHko 2. zikloa	Unitate didaktikoa, DVDA, irakaslearen koadernoak, ikaslearen koadernoak. Monitore-gidaria.	2 ordu	21 ikasle edo gehiago
	HHI eta helduen taldeak			25 ikasle edo gehiago
Santa Maria Katedrala: argiaren elizpea	DBH, DBHO eta beste talde batzuk	Monitore-gidaria	Ordubete	Ez da banatzen
Ikustarazi beharreko historia: emakumeak Gasteizen	DBHko 2. zikloa, DBHO, HHI eta helduen taldeak	Ikus-entzunezko materiala, irakaslearen koadernoak. Monitore-gidaria.	2 ordu.	21 ikasle edo gehiago

**Zehaztutako ikasle-kopurutik aurrera, bi taldetan banatuko dira ikasleak. Kasu horretan, irakasleaz gain, bigarren arduradun bat etortzea gomendatzen da, azpitalde baten ardura har dezan.*

2. ANTOLAKUNTZA

Jarraian, irakasleek ibilbidea prestatzean kontuan izan beharreko zenbait alderdi aipatuko ditugu:

Irakasleen parte-hartzea

Parte hartzen duen irakasleak honako zeregina izango du: ibilbide osoan zehar ikasleek jokabide egokia eta arreta izan dezaten zaintzea. Era berean, irakasleak oso parte hartze garrantzitsua izango du jardueran. Beharrezkoa deritzon aldiro, esku hartuko du, monitorearen azalpenak osatzeko edo azalpen horiek taldearen ezaugarriari egokitzeko.

Ikasle-kopurua zenbateko jakin bat baino handiagoa baldin bada (ikus aurreko orrialdeko taula), bi azpitalde egingo dira. Kasu horretan, irakasleaz gain, **bigarren arduradun bat etortzea** gomendatzen da, azpitalde baten ardura har dezan.

Ikasleentzako oharra

Ezinbestekoa da ikasleak jabetzea ibilbidea ez dela txangoa, hezkuntza-jarduera baizik.

Jarduerara etortzea

Jarduerara etortzerik ez baldin baduzue, Udaleko Hezkuntza Zerbitzuari garaiz jakinarazi behar diozue, jarduera-eguna baino hiru egun balioudun lehenago gutxienez, data aldatu ahal izateko. Jarduerara aurreabisurik gabe eta arrazoibide egokirik gabe huts egiten duenak ezin izango du beste egun batean egin. Gainera, hurrengo ikasturteetan jardueratik kanpo uztea eragin dezake.

Garraioa

Ikastetxeek [garraiorako diru-laguntza](#) eskatu ahal izango dute, gastuen zati bat ordaintzeko.



3. HELBURUAK

Ibilbide-lantegi honen helburua honako hauek dira:

- Ikasleari ezagutaraztea zer nolako harremana duen idazketak kulturaren eta zibilizazioaren zabalkundearekin; baita gizarte-antolakuntzarekin ere.
- Ikasleari erakustea zer bilakaera izan duten latindar alfabetoak eta Mendebaldean mundu klasikotik (Erroma eta Grezia) gaur arte erabili diren kaligrafia motek, milaka urtean pilatutako eguneroko kultura-ondarearen adibide gisa.
- Ikasleari sarrerako ezagutzak ematea artxiboko dokumentuei buruz. Erakutsiko diogu nola idazten ziren, zer euskarritan, zer idazte-material erabiliz eta zer teknikekin.
- Ikasleengan interesa piztea, gaur egun artxibo, liburutegi eta museoetan gordetzen diren iraganeko idatziei buruz.
- Ikasleak kontzientziaztea, artxiboko dokumentuak ikerketa zientifikorako (historia, filologia, ekonomia, eta abar) kontserbatzeak duen garrantziaz.
- Artxiboek egiten duten gizarte-lan garrantzitsua ezagutzera ematea. Izan ere, artxiboak kulturaren babesleku dira, eta herritar gisa ditugun eskubideen demokraziatzko babesak.
- Oro har, Gasteizek gorde duen dokumentu-ondareari buruzko balioespena eta errespetua eragitea.

4. EDUKIAK

Idazketa eta idatzitakoa ibilbide-lantegia DBHko, DBHOko eta Helduen Hezkuntza Iraunkorreko ikasleentzat egin da, eta ondorengo alderdi hauek ardatz hartuta egituratuak ditu edukiak:

- **Alfabetoen eta idazkera-sistemen bilakaera historikoa**
Antzinako alfabetoak (hieroglifikoa, kuneiformea) ezagutzea, bai eta latindar alfabetoaren kaligrafia-ziklo nagusiak ere: erromatarra, gotikoa eta humanistikoa.
- **Dokumentu-euskarrien bilakaera historikoa**
Idazketa-euskarrien izenak, datak eta ezaugarriak ezagutzea: buztina, papiroa, pergaminua, trapuzko papera, zurezko papera.
- **Idazketa-tresnen bilakaera historikoa**
Idazketa tresnen izenak, datak eta ezaugarriak ikustea eta tresna horiek erabiltzea: zulakaitza, kalamua, luma, lapitzak, lumatxoak, estilografikoak, bolalumak.
- **Paleografia, diplomatika eta sigilografia**



Dokumentu historikoak aztertzeaz arduratzen diren bi zientzia horietako oinarritzko terminoak irakastea, bai eta dokumentu horiek ezagutzen nola laguntzen diguten ere (*ductus*, letra etzana, ur-markak, zigilu motak, eta abar).

- **Artxiboko dokumentuak**

Ulertzea zergatik gordetzen diren dokumentu jakin batzuk kontserbazio iraunkorra emateko eta etorkizunean erabilerak emateko. Ezagutaraztea badela zientzia bat, dokumentuak modu antolatuan kontserbatzeaz eta hedatzeaz arduratzen dena: artxibistika.

5. METODOLOGIA

Jarduerak hainbat zati ditu:

1. **Ibilbidea egin aurreko jarduerak. Ikasgelan egingo dira, irakasleek dinamizatuta.**
2. **Antzinako idazketaren lantegia, eta Arabako Artxibo Historiko Probintziala bisitatzea**, monitore-gidariak dinamizatuta.
3. **Ibilbidea egin ondorengo jarduerak. Ikasgelan egingo dira, irakasleek dinamizatuta.**

Ikasleen pentsamendu historiko eta kritikoa garatzeko dira lantegiko jarduerak. Asmoa da ikasleei gogoeta eta analisi sinkronikoa egiten laguntzea, gizadiaren eta haren lekukotasun idatziei buruz. Orobat, ikasleen artean dokumentu-ondarea babestearen aldeko ardura sustatuko da.

Monitore-gidaria saiatuko da lantegiaren edukiak ikasleen jakintza mailara egokitzen. Arreta berezia eskainiko zaie ikasleentzat ezezagunenak edo zailenak diren alderdiei, eta dagoeneko badakizkiten alderdiak laburrago azalduko dira. Hemen ezarritako ikaskuntza-estrategiak, hartara, taldeari egokituko dizkiogu.

Lantegia erabat praktikoa eta parte-hartezkoa da. Harmoniaz bateratzen ditu edukiak bereganatzea eta eduki horiei dagozkien praktikak egitea. Lantegian, orobat, parte-hartzaileen arteko harreman prozesu egokia bultzatuko da. Hartara, indartu egingo dira taldearen kohesioa, ikasleen parte-hartze aktiboa, besteenganako errespetua eta talde-lana.

Esperientzia praktikoan, ikasleek antzinako idazte-materiala erabiliko dute. Horrela, zuzeneko sentipena izango dute, eta dokumentuetarako interesa piztu ahal izango diegu:

- Erakutsiz dokumentu horiek zer eginkizun zuten eta zergatik.
- Lantegiaren hasieran bitxiak eta ulertezinak egingo zaizkien grafia eta zeinuak identifikatuz. Hartara, ikasleak bere aurkikuntzak egiten dituela esperimenteratuko du.



6. IBILBIDEA EGIN AURREKO JARDUERAK

Gomendatzen da irakasleak eskolan aldez aurretik eztabaida eragin dezala, lantegian gero landuko diren gai nabarmenenetako batzuei buruz.

Era berean, nahi izanez gero, Gasteizko Udaleko Hezkuntza Sailak argitaratutako [Artxiboak](#) koadernoko edukietako batzuk azal daitezke. Izan ere, koaderno horretan aurkituko duzue ibilbide honetako edukietako batzuk garatzeko behar den informazioa, bereziki puntu hauetan: bigarrena («Zer dira artxiboak?»), hirugarrena («Artxiboen eginkizunak») eta laugarrena («Dokumentuak eta haien antolakuntza»).

Irakasleek, halaber, badute Arabako Agiritegi Zerbitzuari buruzko informazio gehiago webgunean eta sare sozialetan.

Jarraian, irakasleei ibilbidea prestatzeko lanetarako baliagarri izango zaizkien hainbat eztabaidagai zehaztuko ditugu. Gai horiek gero landuko dira, idazketa-lantegian.

1. ARIKETA

Hizketa idatziz jasotzea zein zaila den nabarmentzea; eta hizkuntza kopuruaren eta alfabeto kopuruaren artean dagoen desberdintasuna ere nabarmentzea.

Idazketa asmatzea funtsezkoa izan da, zibilizazioak garatzeko. Idazketa, Mesopotamiako herri garatuenen artean agertu zen. Zehazki, ezaguna den idazketarik zaharrena sumertar idazketa kuneiformea da, Kristo aurreko 3200. urtekoa gutxi gorabehera; buztinezko taulatxoetan gorde da.

Idazketari esker, jakintza transmititu eta garatu ahal izan da. Informazioaren ahozko transmisioa, izan ere, fidagarritasun txikikoa eta galkorra zen: ahoz aho, mezua aldatuz zihoan, pertsona batetik bestera, belaunaldi batetik bestera.

- 1.1 Zer ezberdintasun dago ahozko kultura baten eta idatzizko kultura baten artean?
- 1.2 Bietatik zeinek aldezten du gehien jakintzaren garapena eta zibilizazioen aurrerakuntza? Zergatik?

2. ARIKETA

Nabarmenduko dugu idazketa, sortu zenean, merkataritzako edo kontabilitateko jardueretan erabiltzen zela, bai eta administrazio edo burokrazia zereginetarako. Halaxe erakusten dute Mesopotamian eginitako arkeologia-aurkikuntzek. Gertaera nabarmenak kontatzeko ere erabiltzen zen. Garbi dago, beraz, idazketak hasieran ez zuela helburu estetiko edo literariorik.

- 2.1 Zertarako sortu zen idazketa?
- 2.2 Zer gai zituzten arkeologiak aurkitutako lehenengo aztarna idatziek?



3. ARIKETA

Europar, Erdi Aroan (VIII-XIV. mendeak), abadiak eta monasterioek eginkizun garrantzitsua izan zuten, Mendebaldeko kultura transmititzen. Monakoen lanari esker, funtsezko testuen kopiak gorde ziren, eta obrak itzuli zituzten grezieratik, arabieratik, hebreeratik...

- 3.1. Erdi Aroan, idazketa —eta, ondorioz, kultura— zergatik geratu zen monasterioetan gordeta?

4. ARIKETA

Inprenta txinatarrek asmatu zuten, 960. urtean, eta askoz geroago heldu zen Mendebaldera. Laurens Coster herbeheretarrek (XIV. mendea) erabili zuen lehendabizikoz zurezko tipo mugigarriak. Hala ere, Johannes Gutenberg (XV. mendea) jo ohi da inprentaren asmatzailatzat, askoz iraunkorragoak ziren berun urtuzko tipo mugigarriak (tipografia) sortu zituelako.

- 4.1. Zer ondorio izan zuen inprentaren sorrerak? Europar inprenta zabaldu zen garaia, Aro Modernoko Europako erlijio-gerren urteak dira. Uste duzu loturarik badela bi fenomeno historiko horien artean? Zergatik?

7. IBILBIDEA

- Arabako Agiritegi Zerbitzuaren aurkezpena (Gasteiz: Zumakadi ibilbidea, 21)

Arabako Foru Aldundiko Agiritegi Zerbitzua Arabako dokumentu ondarearen kudeaketaz arduratzen da.

Arabako Agiritegi Zerbitzuak Arabako administrazio publikoek eta Arabako Lurralde Historikoko beste eragile publiko eta pribatu batzuek sortutako dokumentazioa jaso eta zaintzen du. Ondare hori kontserbatu, deskribatu eta zabaldu egiten da, jendeak ikusteko aukera izan dezan (zuzenean, nahiz Internet bidez), eta herritarrek informaziorako eta kulturarako duten eskubidea bermatzeko.

Arabako Agiritegi Zerbitzuak bi artxibotako dokumentu-funtsak gorde eta zabaltzen ditu; Arabako Lurralde Historikoaren Agiritegiaren funtsak, Arabako Foru Aldundiak historian zehar bere eginkizunak betetzean sortutako dokumentazioa biltzen duen dokumentu-funtsen taldea, bai eta dohaintza, gordailu edo erosketa bidez Arabako Agiritegi Zerbitzuan sartutako bestelako dokumentazioa.

Era berean, Arabako Probintzia-Artxibo Historikoaren funtsak gorde eta zabaltzen ditu. Dokumentu-funtsen talde horrek notarioek eta Estatuko Administrazioak Araban ekoiztutako dokumentazioa biltzen du, bitarteko artxibo fasean eta artxibo historikoan.

Dokumentu-funts horiei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu: <https://web.araba.eus/eu/kultura/artxiboak-eta-dokumentu-ondarea/arabako-artxiboa>



Halaber, argazki funts garrantzitsu bat eta Arabako artxibistikan, genealogian eta historian espezializaturiko liburutegi lagungarri bat du.

- **Sarrera: hizkuntza eta idazketa**

PowerPoint aurkezpen baten laguntzarekin, monitorea ikasleei esplikatuko die hizkuntzaren eta idazketaren arteko harreman historikoa, alderdi hauek zehaztuz:

- Ahozko kulturaren eta idatzizko kulturaren arteko ezberdintasunak.
- Idazketa agertu eta zabaltzeko arazoak.
- Idazketa-sistema: sistema ideografikoak eta alfabetoak.
- Mendebaldeko alfabetoaren aurrekariak.

- **Antzinako idazketa-lantegia**

Esperientzia praktiko horren bitartez, ikasleek zuzenean ukituko dute hainbat idazketa-euskarri (uki dezatela, ukia eta fabrikatze-ezaugarriak nabari ditzaten), eta hainbat idazte-materialen oinarriko erabilera ikasiko dute. Hartara, ikasleek hainbat idazketa-sistemaren ezaugarriak esperimendatuko ditu.

Monitorea, PowerPoint aurkezpen batek lagunduta, idazketako kontzeptu eta teknika batzuk esplikatuko ditu: idazketa-metodoak (eseria edo etzana), letra mota bakoitzaren *ductus*-a, eta abar. Orobat, idazketa-sistemen historia laburra esplikatuko du, historian izan diren dokumentu garrantzitsuenen irudiekin (batez ere Europako eta Euskal Herriko dokumentuen irudiak).

- *Idazketa, Mesopotamian eta Egipton*. Edukia: papiroaren fabrikazioari eta ukiari buruzko azalpenak.
- *Idazketa, Grezian eta Erroman*. Edukia: argizarizko taulatxoan, zulakaitzarekin, latindar karaktereak idatzi eta ezabatzeko ariketa.
- *Idazketa, Erdi Aroan*. Edukia: pergaminoaren fabrikazioari eta ukiari buruzko azalpenak; eta idazketa gotiko librariora (XII. mendekoa) egitea, kalamua erabiliz.
- *Idazketa, Cervantesen garaian (Aro Modernoa)*. Edukia: papera kotoiz eta lihoz nola egin esplikatzen da; eta gorteko idazketa gotikoa (XVI. mendekoa) egiten da, hegazti-lumarekin.
- *Idazketa, XIX. mendean*. Edukia: zurezko zelulosaz paper kimikoa nola fabrikatu esplikatzen da, eta altzairuzko lumatxoarekin idazte ariketa egiten da.

- **Artxibo baten zeregina**

Ikasleei, laburki, artxibo baten funtsezko eginkizunak deskribatuko dizkiogu:

1. Dokumentuak bildu eta hartzea.
2. Dokumentuak identifikatu, antolatu eta instalatzea.
3. Administrazio dokumentuak balioztatzea.



4. Historia-dokumentuak deskribatzea.
5. Dokumentuen kontserbazio prebentiboa (instalatzea)
6. Dokumentuen edukia hedatzea: tokian bertan (irakurketa-aretoan) eta modu birtualean (Internet bidez).

Ondoren, taldea bitan zatituko da, artxiboko bi zerbitzuak bisitatzeko (5. eta 6. puntuak): zaharberitze-laborategia eta irakurketa aretoa.

- **Artxiboen hedapena, gaur**

Arxiboko dokumentu originalak azaldu eta erakustea, artxiboko irakurketa-aretoan. Arabako Agiritegi Zerbitzuaren eginkizun nagusia da Arabako dokumentu-ondarea babestea, eta herritar guztien artean libreki eta dohainik hedatzea.

- Teknikari artxibozainek hainbat dokumentu izango dituzte hautatuak, artxiboaren funtseko dokumentu originalen artean.
- Begiraleak esplikatuak ditu dokumentu bakoitzaren ezaugarri nagusiak: dokumentu-euskarria, idazkera, antzintasuna, edukia, eta abar.

8. IBILBIDEA EGIN ONDORENGO JARDUERAK

Udaleko Hezkuntza Zerbitzuko webgunean **ikaslearen koaderno didaktikoa** dago, ikasitakoa lantzeko informazioarekin.

9. EBALUAZIOA

Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak hainbat tresna prestatu du, Historia eta Arte Ibilbideen Programa baloratzeko. Horretarako, taldearen arduradunaren iritzia bereziki garrantzitsua da.

Horretarako, **monitoreak ebaluazio-fitxa bat emango dio irakasleari** ibilbidearen bukaeran betetzeko.

Bertan, ibilbidean gertatutako edozein gorabehera eta programa hobetzen lagunduko duten iradokizunak egitea eskertuko genuke.

10. ARTXIBOA SAREAN

Web: <https://web.araba.eus/eu/kultura/artxihoak-eta-dokumentu-ondarea>

Twitter: <https://twitter.com/arabakopah>

Facebook: <http://www.facebook.com/arabakopah/>

Instagram: www.instagram.com/arabakopah/

Flickr: <http://www.flickr.com/photos/120809839@N03/>

Vimeo: vimeo.com/ahpa